

## EUSKADIKO FAMILIEN %17,5EK BIGARREN ETXEBIZITZA DUTE


2001eko erroldaren arabera Euskadiko familien %17,5ek bigarren etxebizitza dute. Proportzio hori estatuko batez bestekoa (%15) baino apur bat altuagoa da. Euskadiko familien bigarren etxebizitza gehienak EAetik kanpokoak dira: Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoak hartzen ditu bigarren etxebizitza gehien.

Euskadiko familien bigarren etxebizitzak batez beste urtean 65 eguneko okupazioa izaten dute. Bizi diren udalerrietan kokatuta dauden bigarren etxebizitzaren batez besteko okupazioa baxuagoa da.

Bigarren etxebizitzarik ez duten familiekin alderatuz gero, familia handiagoak izan ohi dira bigarren etxebizitza dutenak, pertsona adintsuagoez osatuak, eta aktiboan ez dauden eta EAetik kanpo jaio direnen proportzio altuagoak dituzte.

2001eko Biztanleen Erroldako datuei erreparatuz gero, **Euskadiko familien %17,5ek bigarren etxebizitza dutela** azpimarratu behar da. Proportzio hori estatuko batez bestekoa (familien %15) baino apur bat altuagoa da. Autonomi Erkidegoak aztertuz gero, bigarren etxebizitza duten familien proportziorik altuena Madrilen dago (%22), baina oso hurbil ditu Aragoi (%21) eta Valentziako Erkidegoa (%20) ere. Beste muturrean kokatu dira Extremadura eta Murtzia, bigarren etxebizitza duten familien proportzioa %9koa baita, batez beste, bi erkidegotan.

### Bigarren etxebizitza duten familiak Autonomia Erkidegoka, 2001



Iturria: 2001eko Errolda. EIN

Euskal Autonomia Erkidegoko egoerari erreparatzen badiogu, azpimarratzekoa da **129.661 familiek** dutela bigarren etxebizitza: familia horien %63 bizkaitarrak dira, %23 gipuzkoarrek eta gainerako %14 arabarrak.

Bigarren etxebizitza duten familien proportzioa oso altua da Bizkaian, bertako familien %21ek bigarren etxebizitza baitute. Portzentaje hori %17raino jaisten da Araban eta %12raino Gipuzkoan.


### Bigarren etxebizitza duten EAEko familiak, 2001

	Kopurua	%	Bigarren etxebizitza duten familien %
Araba	17.592	13,6	17,3
Bizkaia	81.963	63,2	20,6
Gipuzkoa	30.106	23,2	12,4
<b>EAE guztira</b>	<b>129.661</b>	<b>100,0</b>	<b>17,5</b>

Iturria: 2001eko Errolda. EIN

Euskadiko familien bigarren etxebizitzaren %27 EAE barruan kokatuta daude; zehazki esateko, bizi diren udalerrri berean dute bigarren etxebizitza %5ek, herrialde berean %18k eta EAEko beste herrialderen batean %4k. Baina beste Autonomi Erkidegoren batean dutenak dira bigarren etxebizitza duten familia gehienak, %72. Azkenik, Euskadiko familietatik %1ek besterik ez dute bigarren etxebizitza atzerrian.

### EAEko familien bigarren eskuko etxebizitzaren kokapena, 2001



Iturria: 2001eko Errolda. EIN

**EAEtik kanpo kokatuta dauden bigarren etxebizitzaren banaketari** dagokionez, Gaztela eta Leon da Euskadiko familien bigarren etxebizitza gehien hartzen dituen Autonomi Erkidegoa (%23). Atzetik kokatu da Kantabria (%16), familia bizkaitarren kokapenik gustukoena. Hirugarren tokian kokatu da Valentziako Erkidegoa (familien %7,5). Gainerako kokapenen portzentajeak txikiagoak dira.

**Ohiko bizitokia den Lurralde Historikoa** kontuan hartuta, bigarren etxebizitza duten familia arabarren kokapenik gustukoena herrialde bereko beste udalerriren bat da (%24), eta gero Gaztela eta Leongo udalerriren bat (%18). Bizkaiko familien artean kokapenik gustukoena Gaztela eta Leongo erkidegoa da (%28), eta bigarren tokian kokatu da Kantabria (%22). Familia gipuzkoarren artean

bigarren etxebizitza Lurralde Historiko bereko beste udalerriren batean izatea dute gustukoena (familien %19), eta familien %15ek Gaztela eta Leonen dute bigarren etxebizitza.

### EAEko familien bigarren eskuko etxebizitzaren kokapena, 2001

Bizi diren etxebizitzaren eta bigarren etxebizitzaren kokapenak	Bizi diren Lurralde			
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE guztira
<b>EAEn</b>	<b>38,0</b>	<b>22,9</b>	<b>33,7</b>	<b>27,5</b>
• Udalerrri berean	6,6	2,9	10,6	5,2
• Lurralde bereko beste udalerrri batean	23,7	16,6	19,3	18,2
• EAEko beste Lurralde batean	7,6	3,4	3,8	4,1
<b>Beste erkidego batean</b>	<b>61,2</b>	<b>76,6</b>	<b>64,5</b>	<b>71,7</b>
• Gaztela eta Leon	18,0	27,5	14,9	23,3
• Kantabria	7,9	22,3	2,9	15,9
• Valentziako Erkidegoa	10,2	6,6	8,3	7,5
• Errioxa	7,1	5,5	5,9	5,8
• Extremadura	3,6	2,7	6,3	3,6
• Galizia	2,5	3,8	3,5	3,5
• Nafarroa	2,4	1,1	8,7	3,1
• Andaluzia	3,7	2,8	3,2	3,0
• Aragoi	1,2	0,8	5,1	1,9
• Katalunia	2,3	1,2	3,0	1,7
• Beste hainbat Auton. Erkid.	2,4	2,3	2,8	2,4
<b>Atzerrian</b>	<b>0,8</b>	<b>0,4</b>	<b>1,8</b>	<b>0,8</b>
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>


Iturria: 2001eko Errolda. EIN

Modu berean, azpimarratzekoa da jaioterriaren eta bigarren etxebizitzaren kokapenaren artean dagoen lotura. Hala, datu guztien arabera familiako erreferentziatzko pertsona beste Autonomia Erkidegoren batean jaiotakoa denean bigarren etxebizitzaren proportzioa handiagoa da (familia horien %20k bigarren etxebizitza dute), eta gainera, kasu askotan, jaiotako erkidegoan kokatuta dago etxebizitza hori.

**Bigarren etxebizitzaren erabilerari** dagokionez, familia horien artean %31ak adierazi duenez urtean 30 egunez dago okupatuta etxebizitza hori, eta familien %30ek adierazi dute urtean 31 eta 60 egun artean okupatzen dela. Maiztasunen banaketarekin jarraituz, familien %16k adierazi dute bigarren etxebizitza 2 edo 3 hilabetez okupatzen dela, eta familien %12k, aldiz, 91 eta 120 egun bitartean okupatzen dela. Okupazio-denbora horretatik gorakoak dira gainerako %11. Azpimarratu beharra dago, okupazio-denbora horrek ez duela zertan adierazi behar jabe den familiaren okupazioa.

Batez bestekoei erreparatuz gero, Euskadiko familien bigarren etxebizitzak batez beste urtean 65 egunez daude okupatuta, estatuko batez bestekoa baino baxuagoa (urtean 72 egun). EAE barruan Arabako familiak dira bigarren etxebizitza gehien erabiltzen dutenak (batez beste 72 egun urtean), eta gero Bizkaikoak kokatu dira (batez beste 65 egun). Gipuzkoako familiek bigarren etxebizitza gutxiago erabiltzen dute, batez beste 63 egun. Bigarren etxebizitzaren kokapenarekin lotuta, hurbilean kokatuta dauden etxebizitzak dira gehien erabiltzen direnak (118 egun/urtean udalerrri berean kokatutakoak), eta beste erkidegoren batean edo atzerrian kokatuta daudenak dira gutxien erabiltzen direnak (batez beste 57 egun).

## EAEko familien bigarren eskuko etxebizitzaren erabilera, 2001




Iturria: 2001eko Errolda. EIN

Amaitzeko, bigarren etxebizitza duten familien ezaugarri soziodemografikoak aurkeztuko dira jarraian. Bigarren etxebizitza duten familiak orokorrean handiagoak izan ohi dira (batez beste 3 kidez osatutakoak; bigarren etxebizitzarik ez duten familiak batez beste 2,7 kidez osatutakoak dira), familia horien %51 2 edo 3 pertsonaz osatutakoa da eta kasurik gehienetan nukleo-familiak dira (%85).

Bigarren etxebizitza duten familietan erreferentziako pertsonen batez besteko adina 56 urtekoa da (gainerako familietan 53 urtekoa). Modu berean, eta jarduerari dagokionez, kasuen erdia baino apur bat gehiagotan pertsona okupatuak izaten badira ere, bigarren etxebizitza duten familietan aktiboan ez dauden pertsonen portzentajea handiagoa da (%42; bigarren etxebizitzarik ez duten familietan %38). Amaitzeko, erreferentziako pertsona EAetik kanpo jaiotakoa den kasuaren proportzioa (%47) altuagoa dela azpimarratu beharra dago.

## Bigarren etxebizitza duten familien ezaugarri soziodemografiko nagusienak



Iturria: 2001eko Errolda. EIN